

Hautzaro Ikastolako Aldizkaria

TXINPART

1998 Urtarrila-Martxoa - 10. Zenbakia

196...



197...



198...



199...

HAURTZARO IKASTOLA



**MATRIKULAZIO
EPEA ZABALIK**

HAURTZARO IKASTOLA
zaioz gurekin
gu geu gara
ikastola

**URTARRILAK 29 TIK
AURRERA**

■ bulego ordutegia:
8-14 eta 14,30-19,30
■ telefona: 49 16 59

**DENON
ESKURA**

❖ HAURTZARO INFORMATZEN

2. Hiruhilabeteen egindako irteerak
 Santa Ageda
 Su berria
 Opera
 O.N.G.
 Edusex Taldea
 Irteerak

❖ GEHIAGO JAKIN DEZAGUN

Ihauteriak

❖ HATZAK BETE LAN

Badakizue...?
 Antzerkiz Blai
 Zeru
 1. Maila. Gorputza ezagutzen
 2. Maila. Zubietan
 Intxixuak Oirtzungo Plazan

❖ GU ERE KAZETARI

Alaitz eta Mainerri Elkarrizketa
 Jantokiko Sukaldariei Elkarrizketa
 Joxeri Elkarrizketa
 Carhaix: Le Voyate à l'Inconnu
 2^{ème} partie

❖ NAHASTE BORRASTE

Letra-Zopa
 Desberdintasunak Aurkitu
 Hitza Bilatu
 Letra-Nahasketa
 Zein orriladetan dago?

❖ AJENDA




HAURTZARO INFORMATZEN

2.HIRUHILABETEAN EGINDAKO IRTEERAK

HAUR HEZKUNTZA	NOIZ	NORA	HELBURUA
1. MAILA	MARTXOAK 19	ITURRIOTZ	ANIMALIAK IKUSI
2. MAILA	MARTXOAN	TXIKIPARK	MOTRIZITATEA
LEHEN HEZKUNTZA	NOIZ	NORA	HELBURUA
1. MAILA	OTSAILAK 11	PAGOARTE	GORRITI, ZIRIKA ETA MENDIZABALEN ERAKUSKETA
2. MAILA	URTARRILAK 12	E.I.T.B.	* GAIA LANTZEKO GIROKETA * EZAGUTU
	URTARRILAK 16	EGIN	* GAIA LANTZEKO GIROKETA * EZAGUTU
	URTARRILAK 30	ZUBIETA (LASARTE)	EGUNKARIRAKO ELKARRIZKETAK BURUTU
3. MAILA	OTSAILAN	ITUREN	IHAUTERIEN EZAGUTZA
4. MAILA	MARTXOAK 18	ORIO	"LANBIDEAK" GAIA LANDU
	MARTXOAK 25	MERKAOIARTZUN	"LANBIDEAK" GAIA LANDU
5. MAILA	URTARRILAK 22	GERNIKA GUGGENHEIM	* EUSKAL ERAKUNDEAK EZAGUTU * ARTE LANAK EZAGUTU
	OTSAILAK 19	PAGOARTE	GORRITI, ZIRIKA ETA MENDIZABALEN ERAKUSKETA
	MARTXOAK 27	ISTURITZeko KOBAK BAIONA DONIBANE GARAZI	IPAR EUSKAL HERRIA EZAGUTU
6. MAILA	OTSAILAK 18	PAGOARTE	GORRITI, ZIRIKA ETA MENDIZABALEN ERAKUSKETA
	MARTXOAK 23	SAN MARKOS-eko ZABORTEGIA	* INGURUGIROA AZTERTU * ZABOR BILTEGIA EZAGUTU


HAURTZARO INFORMATZEN



BIGARREN HEZKUNTZA	NOIZ	NORA	HELBURUA
1. MAILA	URTARRILAK 21	DONOSTIA	OPERA BAT EZAGUTU
	URTARRILAK 27	DONOSTIA	ETIKA ARLOKO GAIA
2. MAILA	URTARRILAK 21	DONOSTIA	ETIKA ARLOKO GAIA
	MARTXOAK 11,12,13	TXURI-URDIN	PATINAJEA
	MARTXOAK 27	ERNIO	* GEOLOGIA * ESPELEOLOGIA * GORPUTZ HEZKUN
3. MAILA	URTARRILAK 27	DONOSTIA	ETIKA ARLOKO GAIA
	MARTXOAK 4		"MY ENGLISH FRIENDS" ANTZERKIA
BBB - 2	URTARRILAK 10	ARDAGAIEN BILA	* OHITURA ZAHARRA BERRESKURATU * DIRUA BILDU
	URTARRILAK 22	DONOSTIA	ETIKA ARLOKO GAIA
	OTSAILAK 19	DONOSTIA	ETIKA ARLOKO GAIA
	MARTXOAK 27	DONOSTIA	ANTZERKIA IKUSI
	APIRILAK 2	BILBO BERMEO DONOSTIA	* GUGGENHEIM * ARRANTZA MUSEOA * TRABAJOS DE AMOR (antzerkia)
	APIRILAK 1	DONOSTIA Sta Teresa Ikastetxean	* ENTREMESES (antzerkia)



PAGOARTE - "GORRITI"



SANTA AGEDA

Egun honen ospakizuna ez da beti ezaguna izan Oiartzunen. Jose Luis Lekuonak kontatu zigunez bere gazte denboran ez zen ospatzen egun hau. Juan Mari Lekuona, On Manuel Lekuonaren anaia, beste batzuekin batera izan ziren pioneroak Oiartzunen. Hasiera batean koplak urte zahar egunean kantatzen ziren eta Santaren eskia ez zen egiten.

Ohitura hau batzokitik berpiztu zen eta Bizkaitatik ekarritako koplak, hango doinuaz, abesten ziren.

Hasierako talde honetan Feliziano Lukasenekoa zen solista modura, Joxe txistu txistularia eta Gregorio Iñarra (Postakua) danborrarekin.



SU BERRIA



Gure artean galduta edo galtzear dagoen ohitura da Su Berriarena, Euskal Herriko txoko askotan mendeetan zehar burutu dena: Larunbat Santuko funtzioan elizetan erabiltzen den sua etxe eta baserri guztietara zabaltzea. Suaren garraio horretarako zuhaitzei kendutako ardagaiez baliatzen ziren gure aurrekoak.


Oiartzunen horren sustraitua zegoen ohitura hori aurtengo Aste Santuan berreskuratu nahian dabilta Haurtzaro Ikastolako BBBko neska-mutilak. Horretarako Artikutza aldeko mendietan ibili ziren azken Egu-



berrietan, ardagaiak jasotzen Joxe Manuel Lekuonaren gidaritzapean.

Orduan jasotako eta orain lehortzen dituzten ardagai horiek izango dira datorren Larunbat Santuan erabiliko dituztenak. Egun horretan, usuario zaharra indarberrituz, Su Berria jasoko dute elizatik eta herrian zehar zabalduko dira gure ikasleak, Oiartzungo etxeetara Su Berriaren garra eramanetz.

HAURTZARO INFORMATZEN



OPERA

D.B.H. lehengo eta bigarren mailako ikasleek "La Selva Padrona", idatzi izan zen lehenengo opera bufa entzun-ikusi zuten urtarrilaren 21ean, Donostiako Santa Teresa Ikastetxean.

"Serpina, Unberto jauntxoaren neska-me menperatzailea eta Vespone morroia-
ren artean estrategia prestatzen dute, Unberto jauntxoa Serpinarekin ezkon dadin. Unbertok ezkontzea onartzen duen-
enan, Serpina eta Vesponeren artean prestatutako tranpaz konturatzen da".


O.N.G.

D.B.H. 2. eta 3. mailan Erlijio-Etika arlo-
an ikasleek taldeka jardunaz koherentzia
eta justizia gaiak aztertu dituzte. Azterketa
honetan Garapenerako Erakunde ez Gober-
namental (O.N.G.) desberdinak ezagutu
dituzte, besteak beste
Caritas, Manos Unidas,
Amnistia Internacional...


Ikasleek bertako infor-
mazioa eskatu eta jaso
dute O. N.G. bakoitzak
duen egoitzera joz.

Manos Unidas-ek auke-
ra paregabea luzatu zien
gure ikasleei bere proiektu-
an lanean dabilen per-
sona baten bisita eskai-
niz. Horrela, otsailaren
12an, Costa De Marfileko
den Raphael BÍ Kouadio-
ren bisita izan zuten gure
ikasleek. Gizon honen
bitartez ikasleek lurralde

horretako egoeraz hitz egiteko aukera izan
zuten. Raphaelek eta bere emazteak, ema-
kumeen kooperatiba bat martxan jarria dute
eta bere eginkizun nagusia Karite izeneko
manteka ateratzea da.



HAURTZARO INFORMATZEN



"EDUSEX TALDEA"

Martxoaren 16-tik 24-ra B.B.B.2 mailako neska-mutilak Edusex talderan eskutik, sexu heziketari buruz lanean aritu dira bi orduz egunero.



5. mailakoak Euskal Herria ikertu ondoren, Gernikako juntetxea eta Bilboko Guggenheim museoa ikustatu zituzten. Txorata etorri ziren.



"Lehen musua, jakin ezazue ez da ezpainekin ematen, begiekin baizik."
O.K. Bernhardt.

4. mailakoak arrantzale herri batera hurbildu ginen, Oriora, bertako arrantzale batzuekin hitzegitera eta elkarriketa interesgarria izan genuen.



HATZAK BETE LAN

BADAKIZUE...?




ZISNEAK luzean 1,60 m inguru neurtzen dute. Hegalak zabaltzen dituztenean 2,50 m neurtzen dute.

20 kilo inguru pisatzen dute eta duten pisuagatik ezin dute hegan segituan hasi, lehenengo karrerila hartzen dute.

Uretako animalia txikiak, belarrak eta ogi apurrak jaten dituzte. Bere hanketan hiru behatz dituzte.

Normalean har bakar batekin parekatzen dira. Ur ertzean egiten dituzte bere kabiak eta landareekin gordetzen dituzte. Bost-zazpi arraultz gris kolorekoak jartzen dituzte.



ORKAK euskaraz EZPARLATAK izena dute.

6-9 m luzean neurtzen dute.


Taldean 10 edo 12 naka joaten dira eta gainera har handienak gidatzen du. Emeak harrak baina txikiagoak dira.

Normalean kalamare eta arrainak jaten dituzte.

Ugaztun atseginak, argiak, dotoreak eta bizkorak dira.

Burmuin handi eta konplexoak dituzte, gizakien antzekoak.

Harriak irensten dituzte. Zientifikoak uzten dute liseriketa hobeto egiteko dela.





ANTZERKIZ BLAI

Gu DBH 2. mailako ikasleak gara eta antzerkia egitea esperientzia polita izango zela iruditu zitzaigun. Hasieran taldeak egin genituen zozketaren bidez, eta segidan antzerkia idazteari ekin genion. Onartu behar dugu, hasieran zail samarra egin zitzaigula antzerkia asmatzea. Baina behin idazten hasi ondoren, nahiko erraza egin zitzaigun.

Antzerki testua zuzendu eta ordenadorean pasa ondoren, entseiuak egiten hasi ginen. Hasieran desastre-desastre ateratzen zitzaigun, baina pixkanaka-pixkanaka ikasten joan ginen papera eta baita antzerkiaren trukuak ere.

Azkenean, entseiu eta zuzenketa asko egin ondoren, jendearen aurrean egiteko eguna iritsi zen. D.B.H. 1. maila eta 2. maila osoei gure antzerkiak antzeztu behar genizkien. Horrenbesteko urduritasuna genuenez, komunera bidaia bat baino gehiago egin behar izan genuen. Antzezekuan guztia normal ikusten zen; hau da, dena lasai, kontrolatua... baina ondoko

gelan, "aktoreak" egoten ginen lekuan, urduritasuna zen nagusi.

Bukatu zen antzerki goiza, baina oraindik urduritasuna lasaitasunari irabazteko gai zen. Hurrengo egunean jakinarazi zitzaigun zein izango ziren Erretereriako antzerki topaketan parte hartuko zuten lau taldeak. Erretereriara joan eta 200 bat ikusleren aurrean topatu ginen. Hau jende pila! Bertan ezagunak, ezezagunak, txikiak, gazteak...mota guztietako jendea zegoen. Nahiz eta antzerki batzuk besteak baino hobeto prestatuak egon, ikusleok denak txaloz eta txistuz goraipatu genituen. Merezi izan zuen urduritasunak!

Baina ez pentsa guztia hemen bukatu zenik. Antzerki mobida honi guztiari bukaera emateko, zenbait talde gurasoen aurrean egitera ausartu ginen. A! eta etorri ziren gurasoen algarak entzuteak izugarrizko poza eman zigun... Oso komiko sentitu ginen... Hori zen hori farra egitea...



HATZAK BETE LAN



ZERU

Zein errurik du izar dizdiratsuak
zeru beltzean harrapaturik egoteko?
Zein arrazoi du zeru urdinak
pozik egoteko?

Zu zara bai zeru maitea
nere ametsen eramale
zu zara bai zeru maitea
nere ametsen zaintzaile.
Noiz arte?

Gaur arte
bihar arte
ala betiko?

Ez dago munduan
zu bezalakorik
ez eta unibertsoan
irrifartsuagorik.

Beti pozik,
beti alai,

ekaitza iritsi
eta zu jai,
ekaitza bukatu
eta zu jai.
Zure hodei zuriak
kotoizko bolatsoak dirudite
eta zeru elurrezko ponpoiak
une guztien jolasa.
Eh; zeru,
Eh, zeru;
lorik ez hartu
eta ez denkantsatu.
Gabon; zeru maite
amets guztien zaintzaile,
gabon; zeru maite
ze egingo nuke nik zu gabe.

Maialen Samsó

NOLA JAIO TZE N HORTZAK ?

BA AVIZENAK EGOTENDIRA
BOLTAREN DARREREN BAN
ETA DURI HORTXAM UGITU EOTE
DIGUNEAN DEZTEAK BULZATUEGI
N DIB

ENERGIZ

ORAINGOAN 1. MAILAKOAK
GORPUTZA EZAGUTZEN ARI
GARA.

DENTISTA BATI GALDERAK
EGITEKO AUKERA IZAN DUGU ETA
HONEN ONDOREN BEGIRA ZER
IKASI DUGUN...

BESTE GAUZA ASKO ERE
IKASI DITUGU LISERIKETARI
BURUZ, JAIO TZARI BURUZ...

ELENA

LISERIKETA

ABOTIK SARRTSE ENDA GANARIA
ETA URDAKERA GUTINDA
ETA GERO DUTINDA GADNARIONA TUBO ETI NEIK
GUTIN PA ETA GANARIA ESUNABALI O
TUBO TOLOLO GUTINDA
ETAKAKAITAN UNUNIN
DNATRA ENDA
DENA ATERATZEN DA



ZUBIETAN

Hostalatek ateragirenean autobusean zubietara joan
ginen on zai egon ginen. Eta ateroz gurean
entrenatu egin zuten eta entrenatzen bukatu
zutenean atzean fotoak eskatu genituen
eta argazkia ere bai eta elharrizketa
eta gero behera hostalara ateragiren
hostalatek etxera joan ginen eta Zubietan
banderak eman ziguten eta posterrak ere baina.
Gero gustatu zigun elharrizketa egin gurea.
n.



HATZAK BETE LAN




6. maila azokan. margotutako kleraz egindako eskulturak izan zituzten ikusgai. Lan bakoi-tzari jarritako izenburua benetan irudimentsu eta aproposak izan ziren. Etxean dastatu ahal izateko, beraiek egindako kroketa goxoak izan ziren salgai



lhauteriak ikastolan bakarrik ez dira ospatzen. Ondorengo egu-netan herrian ongi pasa ahal izateko, beste mozorroren bat egin zuenik ere egon zen.

IHAUTERIAK



DESIOA

ERABAKIA

SEKRETUA

A E K T I B I T A T E A



Thautertako proiektora

Baldintzak $\Rightarrow$ gaiaren defintza


- Gai berria / ikastolan gutxi ikusia
- Hozoro deslondinak aukeratu.
- Muntaiak: dantza, antzerkia...
- Hozoro eragileak, erosi behar diren eg.

Proporramenak

- *
- *
- *

Borjaka

ARDURA



ELKARLANA

GAIZKI EGINEZ
IKASI

uf!

ΕΡΓΑΣΙΑ

000

ΤΡΑΔΙΤΣΙΟΑ

ΠΡΟΤΑΓΟΝΙΣΜΟΑ

ΓΟΝΑΛΕΝΑ

FESTIVAL



ΟΗΙΤΙΥΡΑΚ

GIROA



I
L
U
S
I
O
A



A
L
G
A
R
A



S
O
R
P
R
E
S
A



I
R
R
I
F
A
R
R
A






MOTRIZITATEA



KORDINAKETA



ERRITMOA





HATZAK BETE LAN

INTXIXUAK OIARTZUNGO PLAZAN

Otsailaren 21 ean, larunbata, ihauteri eguna ospatu zen Oiartzunen. Gaueko zortziak aldera festa hasi zen herriko plazan. Plaza jendez gainezka zegoen intxixuen zain. Plazako argi guztiak itzali ziren eta intxixuak etortzen hasi ziren, diotenez Aiako Harritik, bakoitza antortxa batekin. Intxixuak plazara hurbiltzen ari zirela koheteak bota ziren eta txalapartaren ahotsa entzuten hasi zen. Ondotik intxixuek, beraien antortxeekin eta goizean bildutako puskekin, plazaren erdian sua piztu zuten eta suaren inguruan dantzan hasi ziren perkusioz lagunduta, era berean jendea zirikatzuz. Norbaitek Oiartzungo auzoen izenak esaten zituen banan bana altabozezik, adibidez: ìlturriotzî esaten zuenean plazako bazter batetik auzo honen intxixua hurbiltzen zen plazan egindako kataxulora eta bertan zegoen kañabera zinta bat lotzen zuen. Auzo bakoitzak kolore desberdinetako zinta bat zuen.

Gero, udaletxeko balkoian zegoen polea bati esker intxixua igo egin zen bertara beste intxixuen laguntzaz sokatik tira eginez. Intxixuak igotzerakoan berarekin zeraman zinta desberdinez jositako kañabera bandera modura balkoian jar-

tzeko igande gaua arte. Igandean, arratsaldeko 7 etan berriro bildu ziren intxixu guztiak herriko plazan eta larunbatean udaletxeko balkoian jarritako kañabera kendu zuten jarritako modu berdinean, abesten ari ziren bitartean, ume guztiei kandela bana eman zitzaizen argi guztiak itzaliak bait zeuden.

Egileak: Gaizka Galdos, Mikel Mitxelena



RAT'S TREASURE



This scenario belongs to:



ALAITZ ETA MAIDERRI ELKARRIZKETA

Hiruhilabete honetako proiektu desberdinen artean, gaur egun puri-purian dauden Alaitz eta Maiderri elkarrizketa egitea proposatu genuen. Ikasleok aspaldidanik geunden irrikitan bikote ezagun honekin batera abesteko. Esan behar dugu, gugana hurbiltzeko gonbitea pozpozik hartu zutela, eta guk geuk ere hala eskertu nahi diegula.

Gure herrikoak direnez, guztiok genekizkien abesti guztien letrak. Ederki asko kantatu genuen, eta ederki asko pasa genuen. Galdera sorta ere prestatua geneukan beraiei egiteko...

Hura zen giroa bizitu ahal izan genuen!

1.- Noiztik daukazue musika jotzeko zaletasuna?

Noiztik? Bada, txikitatik, 9 urtetatik edo. Hala ere, Alaitz txiki-txikia zenean, bost edo sei urte zituela, gurasoei beti eskatzen zien trikitixa txiki bat, eta azkenean gabon batzuetan edo ekarri zioten jostailuzko trikitixa bat eta berehala puskatu zuen.

2.- Nondik ateratzen dituzue kanten letrak? Zertan oinarritzen zarete letrak idazteko?

Egia esan, momentuak daude oso alai zaudena. Horregatik, kanta alaiak ateratzen zaizkizu oso pozik bazaude. Askotan, gauean, melodiak etortzen zaizkizu burura eta bi aldiz pentsatu gabe, grabatu egiten ditugu.

3.- Zenbat zarete taldean? Zer instrumentoz baliatzen zarete?

Bost gara taldean: bateria jolea, bajista eta gitarrista, eta gero biok. Guk trikitixa, pandereta eta gitarra jotzen ditugu. Ahal dugun bezala kantatu ere egiten dugu.

4.- Zein da zuen ustez hobekien atera zaizuen abestia? Eta traketsen atera zaizuen?

Ez dakit, ez nuke esaten jakingo. Grabatzen ari garela eta igual hanka sartze bat

egiten dugunean, eta iristen garenean zati horretara, esaten dugu: jo begiratu zer egin dugun hemen, nahiz eta asko ez nabaritu. Baina orokorrean, gustura gelditzen gara.

5.- Zenbat disko saldu dituzue?

Egia esan, ez gara joan galdetzera, esaten digute asko saldu direla, baina...

6.- Pentsatzen al duzue beste diskarik ateratzea?

Bai. Hartuko dugu abendua, urtarrila eta ahal bada otsaila ere, oporrak, abestiak prestatzen hasteko...

7.- Hainbeste arrakasta edukitzea espero al zenuten?

Ez. Keba. Nahiz eta abestiak nahiko atseginak atera, ez genuen hau espero inondik inora.

8.- Noiz eta non egin zenuten lehendabiziko kontzertua?

Bazkari familiar batean, orain dela zortzi bat urte, hasi berriak ginenean, baina noiz eta non? Auskalo! Hainbeste denbora da! Baina, egia esan, ongi zegoen, parranda batzuk botatzen genituen...

9.- Musikak ematen al du bizitzeko hainbat diru?

Agian, denboraldi baterako. Baina betirako, oso zaila da.

10.- Nola jakin zenuten musikarako balio zenuela? Nork animatu zintuzten talde bat osatzera?

Balio? Ba nik uste dut edozeinek balio dezakeela gogoia edukiz gero eta gustatuz gero, hori praktikan jartzea da, eta gero, denborak esaten du. Baina balio, edozeinek balio dezake.

Egia esan, ez genuen planteatu. Poliki-poliki hasi zen. Madalen batzuetan elkartu ginen. Han lagunekin geundela eta, egingo dugu talde bat gau batean jotzeko? Eta, hor



elkartu ginen. Han bajista bat ezagutu genuen eta gero bateria bat sartu zen. Ondoren, horiek utzi egin zuten eta beste batzuk etorri ziren. Baina dena poliki-poliki joan zen.

11.- Zein abantaila ditu talde bateko partaide izateak?

Abantailak? Ba... gustatzen bazaizu, asko disfrutatzen duzu. Herriz herri ere ibiltzen zara –dio Alaitzek–.

Jende pilo bat ere, ezagutzen duzu –dio Mainerrek–.

12.- Gaztetxoak zinetenean, inoiz pentsatu al zenuten musika talde bat osatuko zenutenik?

Musika talde bat ez –dio Mainerrek–, nik txikitan pianista edo kantantea izan nahi nuen, baina musika talde batean ez nuen pentsatzen.

13.- Dagoeneko zenbat kontzertu eman dituzue?

Denetara, auskalo! Uda honetan 75 kontzertu inguru eman ditugu, baina orokorrean ez dakigu.

14.- Astean zenbat entsaio egiten dituzue? Eta non?

Entsaiarik berez ez dugu egiten, baizik eta jotzen entsaiatzen dugu. Normalki Ugaldetxo auzoko Mendibilen entsaiatzen dugu. Abenduan hasiko gara seguraski (dio Mainerrek).

15.- Badakigu gure ikastolako ikasle izanak zaretela. Nota onak ateratzen al zenituzten?

Jua! jua! jua! jua! Normalak –dio Alaitzek–. Ez, ni beti oso txarra izan naiz ikasketetarako, beti Saturnon egoten nintzen edo ez dakit non –dio Mainerrek–.





16.- Urrutien urrutiena nora joan zarete musika jotzera?

Chamoixen, Mont Blanc-en magalean dagoen herrian. Herri hau Italia, Frantzia eta Suitzaren mugan dago, Alpeetan.

17.- Zein herritan jo duzue edo errepikatu duzue gehien?

Gehien... Oreretan, dudarik gabe. Hasi biok, eta taldearekin Orereta izan da gehienetan jo izan dugun herria.

18.- Ospe handia duzuela eta, nabaritu al duzue aldaketarik lagunengan? Aldatu al da zuen bizitza famatuak zaretenetik?

Lagunengan, ez dut uste aldatu denik, betiko lagunak berdin jarraitu dute. Batzuetan lagunak parrandara edo afaltzera joaten ziren eta gu musika jotzera. Bueno, parrandak egiten genituen, baina gure lana dela eta pixka bat hozten joaten da.

19.- Nola sentitzen zarete kontzertu batean jendea saltoka edo oihuka ikusten duzuenean?

Oso polita da jendea disfrutatzen ikustea, gozada bat da. Hain denbora gutxian izan da. Orain dela zazpi hilabete gutxi gora-behera, jotzen hasten ginen abesti berdinekin eta, inor ez zen dantzan hasten eta igual plazan hamar pertsona zeuden. Diska atera eta derrepente ikusten duzu jendea gainezka, eta jendeak abesten duela.

20.- Musikaz aparte egiten al duzue beste zerbait?

Ez. Momentu honetan egia esan ez. Aurrerago ikusiko dugu, aber.

21.- Zein dira zuen hobbiak?

Hobbiak! Udan ba... egia esan lo egitea, paseatzea, zinera joatea, lagunekin egotea... piska bat... udan egin ezin duguna, orain egitea, mendira joatea e.a.

22.- Gehiago ligatzen al duzue famatuak zaretenetik?

Je, je, je. Ez, ez dut uste, jende gehiago gerturatu bai, neska-mutilak..., baina ligatu ez. Denborarik ez daukagu, egia esan. Normalean herri batera joaten zara jotzera... Askotan jendeak esaten digu: a ze herri pila ezagutuko dituzuen jada, ezta? Justu eza gutzen duzu jotzen duzun lekua eta, agian, ondoko taberna. Bada, ligatzeko berdin, jo eta berehala ospa etxera, ez dago asti handirik!

23.- Zein lekutan ez duzue kontzerturik eman eta gustatuko litzaizueke?

Hainbeste herritan jo dugu jada, ez garelako gogoratzen non ez dugun jo.

24.- Nola joaten zarete kontzertuak ematera?

Gehienbat... ibili gara Bizkaia eta Gipuzkoa aldean. A! Nola? Kotxeetan eta furgonetan joaten gara eta elikopteroan ere, funtzionatzen badu...

25.- Kontzertu bat eta gero pozik joaten al zarete etxera?

Bai, normalean bai, nekatuak normalean.

26.- Zein adinetako jendea joaten da kontzertuetara?

Gehienbat haurrak eta gazteak, eta gero askotan gurasoak kontzertuan haur txikiaren zain daudenak.

27.- Zer nahiago duzue jendeak zuekin batera abestea, edota dantza egitea?

Bi gauzak, jende bakoitzak desberdin sentitzen du, batzuk abestuz, besteak dantzan... Biak dira politak, eta beste batzuk begira, kieto!

28.- Bai al da galdetu ez dizuegun zerbait, eta gustura erantzungo zenuketena?

Hainbeste galdera egin dizkiogu gure bikoteari, erantzunik ez diotela eman azken galdera honi.



JANTOKIKO SUKALDARIEI ELKARRIZKETA

Zenbat sukaldari zaudete lanean?

Bi.

Nola izena duzue?

Koro Lopez eta Nekane Pikabea.

Zein da zuen lana edota ardura?

Bazkaria prestazea eta garbiketa. Sukaldearen eta komedorearen garbiketa.

Zerbitzeaz ez zarete arduratzen?

Ez, lan honetarako sei arduradun daude: Maritxu, Izar, Aranzazu, Amaia, Eskarne eta Gurutze.

Zenbat urte daramazkizue lan honetan?

Ni Nekane, badira 17 ikasturte hartu nuela frontoiaren ardura eta ikastolarentzak janaria prestazen hasi nintzela 16 ikasturte. Eta Korok, berriz, 10garren ikasturte du ikastolarentzat lanean ari dela.

Zenbat bazkari prestatzen dituzue egunean?

200 bat. 182 ikasleentzat eta gainontzekoak guretzak eta irakasle batzuentzak.

Ikasle guztiak batera bazkaltzen al dute?

Ez. Bi turno daude, lehenengoan, 12tan haur hezkuntza eta lehen hezkuntzakoek

bazkaltzen dute eta bigarrenean, 1etan, beste guztiak.

Nola erabakitzen dituzue menuak?

Guk ez ditugu erabakitzen. Menuak eman egiten dizkigute hilabetero aldatuz. Ikastolako batzordeak antolatzen ditu menu hauek.

Ikasleek jakin izaten dute ,aurrez-aurretik, egunero bazkaldu behar dutena?

Bai, idazkaritzatik bideratzen da ikasle bakoitzak jakitea hilabetero bazkaldu behar duena.

Pentsatzen dut aldaketak sumatu izan dituzuela Madalensoroko sukaldetik honuntza, ezta?

Bai. Sukalde honetan dena berria da eta hobeto gaude; lavavajillas, patatak zuritze-ko makina.....etabar ditugu lehen ez genituenak. Baina hau dena hain handia eta hain berria da, txukun edukitzeko garbitzen lan gehiago daukagula.

Sukalde honetan gertatutakko anekdota baten bat badaukazue kontatzeko?

Lehendabizikoan anekdota asko izan genituen. Gu ohituta geuden eltze arrunta eta txikiekin eta hemen berriz eltze guztiak industrialak dira eta azpitikan termo bat dute. Janarien kantitateekin ere arazoak izan genituen. Gure kalkuluetan, Madalensoron, erabiltzen genituen kantitateak hemengo eltze handietan gutxiegi iruditzen zitzaigun eta bazpada kantitate gehiago prestatzen genuen. Horrela, hasieran soberrakin izan genituen.

Lehenengo aldian lentejak prestatu genituela, kantitatearena aparte utzita, egina zeudela ikusi genuenean sua itzali egin genuen baino lentejak ia erre egin zitzaizkigun. Eltze industrial hauek azpitikan termo bat dute janaria beroa mantentzeko eta guk detalle hau ez genuen kontutan hartu.

Gaur egun guztia gandituta daukagu.





Nolako harremanak dituzue ikastolarekin?

Beno. Orain arte nahiko aparte egon gara, gu Madalensoron ginen eta janaria prestatzen gennuen eta gehiago ez. Gaur egun aldero gaude eta inkluso irakasleekin harremank gehiago ditugu.

Zein da zuen ordutegia?

Goizetan, beranduenez 9terditean hasten gara lanean eta lan guztiak bukatu orduko seiak izaten dira.

Zein da zuen iritzia jantoki honetaz?

Hasieran gogorxamarra egin bazitzaigun orain pozik gaude.

Mila esker Nekane eta Korori.

Ohiana Mujika, B.B.B.2ko ikaslea



JOXERI ELKARRIZKETA

Zortzi bederatzi urteko neska mutilak gara. Erreportari izan nahi dugulako Joxeri galdera batzuk egitea pentsatu genuen eta eskerrak eman nahi dizkiogu erantzuteagatik. Hemen doakizue gure elkarrizketa:

1.- Joxe non jaio zinen?

Zumaian jaio nintzen. Kostako herri bat da. Hara iristeko hemendik Donostirara joan behar da. Gero Orio, Zarautz, Getaria eta azkenik Zumaiara iristen gara.

2.- Non bizi zara?

Oiartzunen bizi naiz, Arraskularre kalean; 24 garren zenbakian eta 4B etxe bizitzan.

3.- Urte asko al dituzu?

Nahiko. Pentxatu 1940 garren urtean jaio nintzela. Beraz 57 urte ditut.

4.- Bai al duzu umerik?

Bi seme-alaba ditut. Zaharrena semea, Oihan, 19 urte ditu. Eta bigarrenak, Onintzak 15, 16 egiteko.

5.- Kirolarik egitea gustatzen al zaizu?

Beti gustatu izan zait. Gehiena pilota eta futbola baina orain futboleak ibiltzeko anti-juakin gaizki eta pilotan ibiltzeko urteak aurrera. Duela 5-6 urte dena utzi eta orain igandero mendira joaten naiz. Goizeko 6 ak aldera ateratzen gara eta 2,30 tan etxera.

6.- Zein musika gogoko duzu?

Klasikoa deitzen zaiona. Apaiza izan nintzen eta baita ere musika gregorianoa.

7.- Diru asko al duzu?

Bizitzeko nahikoa. Ez dut gehiago behar. Gehiago nahiko banu zozketetan parte hartuko nuke baina ez dut kiniela edo loteria jokatzeko nahikoa dut.



8.- Ze lan egiten duzu ikastolan?

Lehenengo atea ereki, argiak piztu, fotokopiak geletara eraman eta goiz partean gehien bat mantenimenduko lanak (konpondu, margotu...). Arratsaldean idazkaritzan egoten naiz eta batez ere telefonoa hartu eta fotokopiak ateratzen ditut. Zuek joaten zaretenean berriz, denbora badut, mantenimenduko lanak egiten jarraitzen dut.

9.- Gustatzen al zaizu idazkaritzan egotea?

Neri egotea ez zait gustatzen. Neretzako okerreña da fotokopiak egiten bukatu eta lanik gabe egotea. Eskerrak hau gutxitan gertatzen dela.

10.- Zuk fotokopia asko egiten al dituzu?

Asko, egunero 3.000 - 4.000 - 5.000 kopia. Eskerrak bi makina dauzkagula. Eguna izaten dira gutxiagokoak bina... egunero kopia asko egiten ditut.

11.- Beti lan hau egin al duzu ikastolan?

Ez. Lehenengo urteetan irakasle izan nintzen, klaseak ematen nituen. 15 urtetan eman nituen baina klaseak bakarrik eman ez. Klaseak bukatu ondoren oraingo lanak nituen. Hori ikastola txikia zenean. Haunditu zenean lanak askoz gehiago ziren eta batzordeak pentsatu zuen pertsona bat behar zela lan hauek egiteko. Ordurarte nik egiten nituen, beronek jarraitzea onartu zen.

12.- Nahiko al zenuke zuzendaria izan?

Ez! Ez dut nere burua horretan ikusten, ez dut balio. Nere gustoz behintzat ez nintzateke izango.

13.- Beti hemen egingo al dezue lan?

27 urte hauetan hemen egin dut lan. Honera etorri aurretik, apaiz izan nintzen



urte batzuk eta orduan ere Oiartzunen nengoela klaseak eman nituen orain liburategia dagoen lekuan.

14.- Ze ordu arte egoten zara lanean?

Ordu jakirik ez dut. Batzutan 7ak arte edo 7,30ak arte... Egunen batean 6tan joan behar badut joan egiten naiz. Ordutegi flexiblea dut.

Hala ere nire izateko era ez da geldirik egotekoa eta, etxetan lanik ez badut, nekatu edo gosetu arte gustora egoten naiz hemen. Lehenengo aste bukaeran ere, libre nengoen eta hemen ibili nintzen. Afaldu ondoren azken buelta egiten dut argiak itzaltzera.

15.- Txinpart irakurtzen al duzu?

Bai irakurtzen dut eta Txinpart bakarrik ez, ikastolako hileroko aldizkaria ere.

16.- Zuk esan al zenion zuzendariari jantoki berra egiteko?

Nik ere esan nion baina batez ere jantokian dabilzan. andereñoak sentitu dute premi hori.

JON GARMENDIA
IÑIGO ETXEGIA
AINHOA BENGOTXEA



CARHAIX: LE VOYAGE À L'INCONNU 2^{ÈME} PARTIE

"LA VILLE CLOSE", CONCARNEAU



Sur la photo nous nous reposons après avoir visité Concarneau avec nos copains de Carhaix.

À Concarneau nous avons acheté les souvenirs pour nos familles: des "tris-kels", des savons d'odeur, des tee-shirts, des figures de porcelaine, etc. Tout en France c'est cher pour nous.



À l'entrée de "la ville close" se trouvait un garçon qui jouait la cornemuse celtique.



À l'entrée de la petite ville close on peut voir un horloge solaire et un autre analogique. La ville entourée par la mer est très jolie.



Après, elles nous montrent comment faire une crêpe.



LE FESTIVAL DES VIEILLES CHARRUES

Tous les années il y a pour les fêtes un festival. Il s'appelle "Le festival de vieilles charrus". Il est défendu de faire des photos à l'intérieur du festival.

Voilà une invitation pour le festival.

Nous avons dansé très bien avec nos amis. Nous avons mangé aussi beaucoup de chips pendant la soirée.

Les amies bretonnes cuisinent des gateaux typiquement bretons.



Maintenant c'est l'heure de manger notre gateau de fromage et le flan d'orange.

**FESTIVAL
DES VIEILLES
CHARRUES**
Jane Birkin
Kent
Nada Surf
Miossec
Blankass



Carhaix

invitation

vendredi 4 juillet 97 à partir de 18 heures 30

N° 00254



À L'HÔTEL DE VILLE DE CARHAIX

Sur la photo nous voilà devant la mairie: 24 jeunes basques avec d'autres jeunes bretons.



L'adjoint à la culture, M. Moisan, nous a offert un sac au dos de la part de la municipalité en guise de cadeau de bienvenue.

DE RETOUR À LA MAISON

Avant de rentrer à la maison on a visité les menhirs de Carnac. C'est un paysage plein de très vieux menhirs.




C'EST FINI!

On vous a présenté notre voyage en photo mais l'expérience a été plus importante: Nous sommes partis à l'aventure, tout seuls (laissant notre famille). Nous avons découvert un pays, ses gens et ses coutumes. Nous avons eu des sentiments de solitude, de peur, d'incompréhension à cause du langage... Mais nous nous sommes accrochés à nos copains d'aventure, nous avons partagé notre expérience et nos petites larmes, nous avons connu de beaux garçons et belles filles, nous avons fait d'amis, nous avons beaucoup appris et... surtout... NOUS AVONS GRANDI!!! À la prochaine!

HORRA!

Azken bi ale hauetan Bretagnera egindako bidaia argazkitan erakutsi dizuegu baina esperientzia askoz sakonagoa izan zen, benetako abentura. Etxekoak utzi eta lurralde, jende eta ohitura berriak ezagutzera abiatu ginen. Bakardadea, beldurra,... ulermen falta gainditu nahian, gure aldameneko lagunari eutsi, esperientzia, algara eta malkoak konpartitu ditugu, mutil galantak eta neska ederrak ezagutu, lagunak egin. Askok ikasi dugu... baina, batez ere, HANDITU EGIN GARA!!! Beste bat arte!



NAHASTE BORRASTE


Irte

LETRA - ZOPA

A.P. 4

Aurke itzazu zazpi abesti
izena.

Z	E	L	I	S	A	T	K	O	Y	L	A	B	A	P
O	J	K	I	N	A	L	E	B	K	U	N	E	A	B
U	L	P	U	B	T	U	G	O	I	N	G	Z	O	L
B	M	L	A	I	P	A	K	O	E	A	I	J	R	B
O	X	I	N	K	A	T	A	T	A	P	A	T	O	E
L	G	U	T	X	I	B	I	R	I	K	E	P	O	N
E	H	A	E	K	N	U	L	A	M	G	R	N	Z	
A	Y	T	X	I	B	I	R	I	S	H	N	K	G	K
Z	O	H	S	H	R	U	L	E	K	O	I	Z	A	A
E	S	I	H	A	M	J	U	G	I	R	X	F	O	N
P	H	O	P	R	P	A	K	I	A	B	E	X	A	U
J	L	A	U	Z	R	E	O	B	S	T	D	Z	L	T
H	T	D	E	K	U	K	U	H	I	K	U	A	R	O
D	M	O	J	K	L	Z	I	X	Y	A	G	E	T	K
L	A	I	B	A	M	O	T	K	U	R	E	S	N	Y



Marrazki batzuen beharngo hitzak bilatu
hitz bat abstratu.




Desordenatzen

Aurke

• Bi marrazki berak azaldu.

orduan, aurke itzazu 8 ordenatzen.



A.P. 4 Irte

96-XI-30


LETRA - NAHASKETA

Aurke itzazu hamar abestiaren izenak

I R I N P X A I
A B L U A A E H Q N F Z N I R F
D S K I A I L A
U N O Z A I T R
U L A H I R I F A Z A A
B A A I C
G E E I A G D N I N
E I T L B A E L S
L E A N E S L A M
O N O N B O A L

NAHASTE BORRASTE

ZEIN ORRIALDETAN DAGO?



Bila eta aurki ezazu marrazki hau. Aurkitzen duzunean idatz ezazu laukian orrialdearen zenbakia, zure datu guztiak eta ikastolara ekarri.

Orrialdea:

Izena:

Abizena:

Maila

Gela:



AJENDA

JANTOKIKO ZAINZAILAK
HAURTZARO-REN 30. URTEMUGA
IBILALDIAK
INGURUGIRO ASTEA

LEXOTI
SU BERRIA
AGURRA



HAURTZARO
ikastola



kutxa

fundazioa
fundación

